

Merezimendu lehiaketarako 22-11-11ko mahai negoziatzailearen informazioa

Haurreskolak Partzuergoak egin zuen Kontsolidazio deialdiaren proposamenari sindikatuok egin dizkiogun ekarpenak aztertu genituen aurreko ostiraleko, hilak 11, mahai negoziatzailean. Haurreskolak Partzuergoak otsailean eskaerak aurkezteko epea ireki nahi du, irailean lanpostuen jabetzak indarrean sartzeko helburuz..

Hauetara LABek egindako proposamearen ildo nagusiak, <https://irakaskuntza.lab.eus/labek-haurreskolak-partzuergoko-kudeaketa-arloko-merezimendu-lehiaketarako-ekarpenak-bidali-ditu/>

Barematuko diren ATALAK		
Lan esperientzia Orokorra: <ul style="list-style-type: none"> • Edozein administrazioan kategoria berean emandako zerbitzuak Espezifikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Haurreskolak Partzuergoan emandako zerbitzuak 	Beste merezimenduak <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkoen zerrendan egotea • Prestakuntza • Informatika-ezagutzak Gehitutako ATAL BERRIAK azken proposamenean <ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko hizkuntzak • A taldean: euskararen 4.hizkuntza eskakizuna 	
LABen proposamena	Haurreskolak Partzuergoaren azkena	LABen erronka
Lan esperientzia		
- Azkenengo 17 urteak zenbatzea (Kudeaketako aintzinasun zaharrena kontuan hartuz) -Lan esperientzia bi aldiz zenbatzea. -Espezifikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Partzuergoan kategoria bereko esperientzia era progresiboan puntuazioa igotzen, gaur egun Partzuergoan lanean daudenak sarituz: • Partzuergoan bestelako taldean izandako esperientzia zenbatzea. Puntuen % 90a	-Azkenengo 15 urteak zenbatzea - Lan esperientzia bi aldiz zenbatzea <ul style="list-style-type: none"> • Urte guztietan berdina puntuatzea • Ez dute onartu Puntuen %60	-Azkenengo 17 urteak zenbatzea -Azken urteetan izandako lan esperientziaren puntuazio gehigarria lortzea. -Bigarren espezifikoa ere lortzea. Puntuen % 85a
Bestelako merezimenduak		
<ul style="list-style-type: none"> • Titulazioa: masterrak ere jasotzea • Kudeaketa arloko gaiekin zerikusia duten Ikastaroak zenbatzea Puntuen %10	-ikasketa –eremuko master ofizial bakoitza puntuatzea -Ikastaroak ez dituzte onartu Berriak: -Atzerriko hizkuntzak puntuatzea -A taldean euskarazko 4. Eskakizuna puntuatzea Puntuen %40	-Atzerriko hizkuntzak EZ puntuatzea -4. Eskakizuna EZ puntuatzea Puntuen %15

Lehentasunezko ordezkoen zerrenda: "...langileren batek lanpostu finkoa lortuko ez balu, egoera horretan dauden langileen artean lehentasunezko ordezkoen zerrenda bat osatuko da." LABek egindako proposamena ez du Partzuergoak onartu eta horrez gain, gaur egungo lan-poltsak berrantolatu nahi dituzte prozesuaren puntuazio gaitzen duten hautagaiekin.

LABek eskatu zuen adostutako araudian oinarritutako birbaremazio prozesua egitea eta argi utzi zuen, guretzat lehentasunezko zerrenda marra gorria dela.

Haurreskolak Partzuergoak beste proposamen bat helaraziko digu posturak hurbiltze aldera. LAB sindikatutik prozesuaren inguruko informazio zehatz guztia langileekin partekatuko du hurrengo egunetan zehaztuko ditugun langileen asanbladetan.

Beste gai batzuk

Kontratazio mota berria

Lan erreformaren ondotik Lan-hitzarmenaren 12.4 artikulua negoziatio proposamena **egin digu Haurreskolak Partzuergoak.**

Aipatutako artikuluan jasota dago Lan Estatutuaren 15.1.b) Artikuluaren baitan adostutako kontratuak 9 hilabeteko iraupena izan dezaketela (lan-metaketak) alde sozialarekin negoziatuta. Era berean, premia bereziak dituzten haurrak dauden haurreskoletan 12 hilabete arteko produkziogatik kontratazioa proposatu dute.

LAB sindikatuak proposamena idatziz bidaltzeko eskatu du. Ez dugu ulertzen nola hezitzaileen lanpostuen zerrendan 123 lanpostu bete gabe izanik, lan hitzarmenaren negoziatioa blokeatuta dutenean eta kontsolidazioa eta doakotasuna indarrean jartzeko atarian negoziatio hau proposatzen duten.

Beraz, momentuz 6 hilabete arteko lan metaketa kontratuak egin ditzakete. **LAB sindikatuak hurrengo lan hitzarmenarekin batera gai hau negoziatzeko eskaintza egin du.**

Soldata igoera <https://telegra.ph/Erosahalmena-bermatu-orain-11-07> eta **Kilometrajea igotzeko eskaera**

Desplazamenduak eskatzen duten lanpostuetarako kilometrajeagatik ordaintzen den dietaren igoera eskatu dugu. Gaia non aztertzen den argituko dute, Eusko Jaurlaritza osoan zehaztutako kopurua ordaintzen baita.

ANIMO ETA AURRERA!

haurreskolak.ara@lab.eus – 689 68 62 07 – 637 47 40 15

haurreskolak.biz@lab.eus – 666 77 11 96 – 666 77 09 82

haurreskolak.gip@lab.eus – 674 09 45 43 – 666 77 54 84